

# Abarak

JON TORNER

## Siziliako 'fumetto' beltza


*Brancaccio*. (Norma, 2008)

Gidoia: Giovanni di Gregorio / Marrazkiak: Claudio Stassi

96 orrialde, zuri-beltzean.

PALERMO ekialdean dago Brancaccio auzoa, tren geltokiaren atzealdean. Siziliako beste hainbat lekuren antzekoa da, kale ilun eta eraikin zaharkituekin. Postal ponpoxo bila ez dabilen kanpotarraren begietara kale-bazterren itxura narrasak xarma berezia izan dezake, baina esku artean dugun *fumetto*ak (zein izen ederra komikia izendatzeko!) erakusten digu argazki *zikin* horren atzean errealitate are beltzagoa dagoela. Urterik bortitzenak pasa diren arren, *La Cosa Nostra*k ezkutuan kontrolatzen du oraindik Brancaccio, hango negozioak eta hango herritarren joan-etorria, Hollywood-ek zabaldu duen mafiaren irudi sarri epiko horretatik at.

Bi autore palermotarrek, Giovanni di Gregorio gidolariak eta Claudio Stassi ilustratzaileak, apaingarri gehiegi erabili gabe lortu dute presio hori islatzea; mafiaren presentzia itogarria da Brancaccioko eguneroko bizitzan. Isilpekoa da, ez dago tirorik, ez odolik, baina bertakoek lepondoan sumatzen dute haren hatsa.



*Brancaccio* nobela grafikoa eta salaketa-kazetaritza uztartzea xede duen *Graphic journal* bildumaren baitan plazaratu du Normak. Bildumako liburuek kazetarien eta gaiarekin harremana duten lagunen artikulua jasotzen dituzte. *Brancaccio*-ren gaztelaniazko edizioan parte hartu dutenetakoa da Maria Paz Lopez, *La Vanguardia*ko Erromako korrespontsala. Aitzinsola-sean dio, agian, Sizilia ederrean bizi ez den pertsona batek ez dituela komikiko ñabardura guztiak harrapatuko. Litekeena da hala gertatzea. Dena den, gabezia hori testu periodistikoek betetzen dute: Rita Borsellinoren (mafiak hildako Paolo magistratuaren arreba), Saverio Lodato kazetari italiarraren, *pizzoaren* –mafiak exijitzen duen zergaren– kontrako *Adiopizzo* mugimenduko kideen eta Di Gregorio-Stassi bikotearen hausnarketa eta azalpenek komikiak kontatzen duen istorioa hobe ulertzen lagunduko digute. ■

# Atxaspi Hotela



*ametsetan bezala.*

Bittiria 24

Lesaka (Nafarroa)

T 948 637 536

hotela@atxaspi.com

www.atxaspi.com